


...eta

Kitto!

890 zkoa.
2014-V-23



Dantzan, saltoka, hegan... **EUSKAL JAIAREKIN**



Made for
iPod iPhone iPad



Audifonoak

R.P.S. 5508



J. Etxebarria, 13
943 700 230





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutua, Bartzelona.

Etengabe Formakuntza.

New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:
10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL
clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Ingelesezt hitz gehienak monosilabikoak dira, eta diskurtso batean sartzen duzu sekulako informazio pila oso epe labur batean. Euskararekin joera da dena luzatzea, zailagoa egitea. Kondentzen ari gara jendeak ez erabiltzera. Hizkuntza errazteko badakugu abantailarik: dialektuok ematen dute horretarako bidea. Adibidez, aditz potentzialak askoz ere sinpleagoak dira Nafarroan, Iparraldean edo Bizkaian bertan"

(MIKEL MENDIZABAL, HIZKUNTZA IRAKASLEA)

"Estatu nazioak dira, instituzio gisa, estatutik ez duten nazio guztiek sufritzen duten zapalketaren erantzule. Estatutik ez duten nazioak, zapalkuntza horretatik askatzeko, estatu nazioa eraikitzea dute helburu gisa gehienetan. Baina estatutik ez duen nazio batek, estatua eratzean, bere barruan dauden gutxiengoak ez errespetatzeko aukera asko ditu. Eta berarekin egindakoa erreproduzitu luke. Horregatik, zapalduak izateari utzi eta zapaltzaile bihurtzeko arriskuan zaudete"

(EPHRAIN NIMNI, UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA)

"Azpikontzara bateko azpikontzarako behargina hil da Leioako kanpusean. Hori nahiko tristura ez eta ikasleek erakutsitako sentsibilitate eza salatu nahi dugu, hildakoari argazkiak atera eta sarean zintzilikatu dituztelako, haren familiakoek bere senidea modu duinean tratatua izatea duten eskubideak ahaztuta"

(SINDIKATUAK)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KAMA-BARREN.- Ohean hankak egoten diren parte. "Oker habil, almuhada kama-barrenian ipiñi dok".

KAMADARRAK.- Ohearen atzeko eta aurreko hagak. "Kamadarrak eskatu biharko destazuz, ikusi bat emoteko, ia imutxarrik agiri daben".

KAMIÑO.- Errepidea. "Aurrera jarraitu eban, eibartar gaztia kamiño baztarrian ahua bete hagiñekin lagata".

eskutitzak

MEZU SEXISTEI, ERANTZUN FEMINISTA!

Nalua (Eibarko gazte feminista taldea) osatzen dugunok, sare sozial ezberdinetan argitaratzen diren mezu sexista eta matxistak salatu nahi ditugu. Konkretuki **...eta kitto!** bide erabili dugu badakigulako mezu hauek Eibarko talde edo banakako desberdinak dituztela atzetik (mutil edo gizonak kasu gehienetan).

Azkenengo asteetan horrelako mezuak aurkitu izan ditugu gizarte sareetan: "¿Cuánto tiempo hay que esperar para ver a tías en bikini por la calle? ¡Putas gua-

rras! ¡Ojalá os violen" edo "Hay dos tipos de mujeres en el mundo: las que la chupan y las que todavía no han cumplido los 14".

Aurki ditzakegun jarrera sexista bakarrak ez direla jakinda, Nalua-ren parte garenok gizarteak ezin duela horrelako mezuak onartu eta guztion bazterteratzea behar dutela uste dugu.

Eraso sexistei, erantzun feminista!

NALUA

OHARRA

DOMEKAKO HAUTESKUNDEAK WEB ORRIAN JARRAITUKO DITUGU

Domekan, hilaren 25ean, Europako hauteskundeak direnez, jarraipena egingo diogu egun horretan gertatzen denari. Dena dela, oraingoan ez dugu alerik kaleratuko, Udalerako, Batzar Nagusietarako, Eusko Legebiltzararako eta Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskundeetan egiten dugun moduan. Oraingo hauteskunde hauek ez gaituzte-eta hain gertutik harrapatzen eta zailagoa baita berta-



ko datuak gure herriaren errealitate estrapolatzea. Oraingoan, dena dela, arratsaldetik aurrera jarraituko dugu gure hauteslekuetako martxa eta Eibarren jasotako datuen berri gure web orrian izango duzue, gauez -behin emaitzak jakin ondoren- hauteskundeetara aurkeztu diren alderdiek gure herrian dituzten ordezkarien interpretazioak jasotzeaz gainera.

ERREDAKZIOA



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGÉ-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak diruz lagundutako aldizkaria

MARIA SERVINI EPAILLIA EUSKAL HERRIXAN

Josu Ibargutxi eta Jon Etxabe eibartarrak frankismoko krimenak salatzen

Egixa eta justizia eske zabal-dutako bildari jarraituta, frankismoko krimenaren kontra abiatutako ekimenak beste urrats bat egin dau Maria Servini Argentinako epailliak gurera egindako biagiarekin. Domekan heldu zan Bilbora eta lau egun egin dittu hamen, hainbat lekukotasun jasotzeko. Españiñan hórrek krimenok argitzeko iñolako asmorik ez dakela ikusitta, Goldatuz taldiak frankismuaren inpunita-

tearen kontrako kereilla aurkeztu zeban Argentinan. Oin dala urte bi hara juandako tal-dian izan zan Josu Ibargutxi eibartarra eta oin dala hiru hilla-bete Servinik berak deklarazi-ñua hartu zetsan Jon Etxaberi, sasoi hartan Azittainen jardun-dako apaizari, bideokonferen-tzia bittartez. 2013ko iraillaren 18xan frankismoko lau polizia atxilotzeko agindu zeban Servinik: bi hilda dagoz eta beste bixen -Jesus Muñecas eta Billy



Ibargutxi eta Etxabe eskuman frankismoaren biktimen joan zen asteko agerraldian.

el Niño- estradiziñua eskatu zeban urrian. Auzitegi Nazio-nalak atzera bota dittu eskari-xok, hor gizateriaren aurkako krimenik ez daguala esanez. Donostian egindako agerraldi-

xan frankismua ikertzen diharduen Argentinako epailliak esan ebanez, "ukatutako estradiziño eskarixetako inputa-tuez gain gehiago izango dira".

Eguaztenian banatuko dira T. Etxebarria sarixak

Epaimahaixak aurtengo Toribio Etxebarria sarixetara aurkeztutako hautagaitzen artian finalistak aukeratuta, irabazlieri sarixak banatzeko ekitaldixa datorren asteko eguaztenian egingo dabe Coliseo antzokixan. Ideia Enpresa Asmuak atalerako aukeratu dittuen finalis-tak Brain Cloud Computing- BCC (garun-irudixak prozesatzeko zer-bitzuetan adituak), Ubertitles (bi-deuak modu automatikuan azpiti-tulatzeko web erremintta), Baige-ne (kirolian errendimendua hobe-tzeko kit genetikuk), Ma+D (ne-kazaritza hondakiñetatik balio erantsi altuko produktuak lortzeko ingenieritza) eta Arima (HDIV web segurtasunerako softwarea) dira. Eta Enpresa Barrixak kategorixako

finalistak, barriz, Smowltech (aur-pegi-errekonozimendu bidez, in-terneteko erabiltzailliak egiazta-tzeko zerbitzua), Irisbond (orde-nagailluen begirada bidezko kon-trolerako sistemia), DNA Data (gai-xotasun genetikuen diagnostiko molekularerako produktu eta zer-bitzuak) eta Cyril Data Systems (balixo erantsi altuko teknologixetan oiñarritutako industriaren kon-trolerako monitorizaziñua).



Armerixako ekintzailliak

Aurreko asteko barixakuan Ekintzaillien Egunaren ha-rira saio berezixa egiñ eben Armerixa Eskolan, hiru ikas-le ohik ekintzaillietasunari lotutako euren esperientzixak kontatzera juan ziran-eta: Elena Manzano eta Bitxa Kamilak eurak sortutako "Xtremonorte" kirol aldizkarixaren gaiñeko gorabeherak azaldu zittuen, Aritz Tolak "Snatu" surf-taulen enpresia zelan sortu eban esplikau zetsen ekitaldixan batutakueri eta Alberto Gomezek gauza be-rra egiñ eban, baiña "Midvi Longboard"ko patinatze-kaularen bere proiektuari buruzkuak kontatzen.



● tartak
● enkarguak
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

LIKIDAZIOA

Valenciaga



%50eko
deskontuak

K O N F E K Z I O A K

Zuloagatarren, 7

☎ 943 20 22 33

Eguraldixa lagun Dia das Letrasen

Barixaku arratsaldian txosnia zabaldu ebenetik domeka gabera arteko programaziñuak jai giruan disfrutatzen aukeria eskindu zetsen Urkizu inguruan bildutakueri. Carballiñotik etorritako pulpeiruak raziño mordua preparau zittuezen handik ekarritako 3.000 kiluak amaittu arte. Ohikua danez, As Burgas Galizia Etxeko Os Galaicos taldiak Galiziako dantza eta musikiarekin girotu zittuan Dia das Letrasen inguruko jaixak; egin-kizun horretan, gaiñera, Eibarko trikitilarixen laguntza be euki eben. Galiziatik etorritako orkesta bixak, bestalde, ondo baiño hobeto girotu zittuen berbenak.



Hiru egun hartu eben gailleguen jaixak. LEIRE I.

autuan

ELIKADURA OSASUNTSUA

Maiatzaren 28xa Elikaduraren Eguna da eta, horren aitzakixarekin, Juan San Martin liburategiak hitzaldixa antolatu dau Aurora Cid Alonso dietista-nutrizionista. Eguaztenian 18.00eta hasiko dan hitzaldixan, bestiak beste, osasuntsu jatia dibertigarria izan leikiala azalduko dau.



HITZALDI-AURKEZPENA


Astelehenian, 19.00etatik aurrera Manu Marañonek "Hablar en publico" bere liburua aurkeztuko dau Portalean. Marañonek jendaurrian berba egin bihar dabenendako hainbat aholku azalduko ditto.

Abontzako Itturixakuak edarto jaixetan



DJ Xaiborrek girua sortu eban gaztien artian. LEIRE ITURBE

Barixaku arratsaldian txupinazuarekin batera hasittako jaixak primeran ospatu zittuen asteburu osuan Abontzan. Barixaku arratsaldian DJ Xaibor eta patata-tortilla txapelketia izan ziran protagonista eta zapatuan, goizetik hasi eta gabera arte, era guztietako ekitaldixekin bete eben eguna. Erretegi erraldoian egindakak afaldu eta gero, Liskerren berbenan dantzan jardun eben askok. Domekan, meziarekin agurtu zittuen Abontzako Itturixak hamargarrenez antolatutako jaixak.



2014-IV-12

**EUSEBIO
GORROTXATEGI
ASKASIBAR**

**JUANI
AJURIA
ETXEARRIA**



2014-IV-18

*Hillabete juan zarienetik
susmua daukagu
bihotzaren barrenetik
maittasunaren irrifarrez
begira zagoziela hortik.*

Gorrotxategi Lasa eta Lasa Ajuria famelixakuen izenian, ESKERRIK ASKO gure nahigabian lagundu eta gurekin izan zarien guztieri.

Euren aldeko MEZIA ospatuko da San Andres parrokiyan hillaren 25ian, DOMEKAN, eguerdiko 12.00xetan.



asteko 47'15 datua

egun itxoin bihar dira batezbeste Mendaroko ospitalian operatzeko. Iaz 3.588 ebakuntza egin zittuen kirofanuan, 7.287 gaixo euki zittuen ingresauta eta 30.890 larrialdi atendidu zittuen.

Gazte lokalendako laguntzak

Gaztien aisialdirako lokalak legezatzeko diru-laguntzak emoteko deialdixa aldizkari ofizialian argitaratu dabe eta eskaeriak egitteko epia urriaren 17ra arte egongo da zabalik (Pegoran). Diru-laguntzak, legiari egokitzeko biharrezkuak diran agirixak idaztiagaittik sortutako gastuen %100 ordaintzera bideratuta dagoz eta, edozelan be, laguntasunak ez dira 800 euro baiño gehixagokuak izango. Udalian onartu eben gaztien aisialdirako lokalak arautzeko udal ordenantza 2013ko azarua-ren 4ko Gipuzkoa-ko Aldizkari Ofizialian emon eben argittara eta www.eibar.net udalaren webgunian be irakortzeko moduan dago.

Eibarko Emakumiak martxan



Aurreko zapatuan Donostian egin zan "Emakumeen osasunaren aldeko III. Martxan: Nire Gorputzarekiko eskubidea dut" ekitaldixan Eibarko emakume talde bat parte hartzen egon zan. Emakumien ugalketa eta sexu eskubidiak aldarrikatzeko kanpaiñaren barruan egin dako martxa Haurralde Fundazioa, Kimetz, Malenetxea, Mujeres con Voz, Eraldatzen, Safa eta Discapacidad sin distancia taldiak antolatu eben.

Gure Esku Dago jairako autobusak

Ekaiñaren 8xan Bergaran egingo dan Gure Esku Dago jaira juateko autobusak antolatu dittue: goizeko 09.00etatik 10.00etara, bete ahala Untzagatik (jubilaueen aldetik) urtetzen juango dira eta bueltarako autobusak, barriz, 14.00etan eta 19.00etan izango dira. Txartelak erosteko azken eguna ekaiñaren 4a (eguztena) izango da eta Juanito-Manuel, Kultu, Depor eta Guridi tabernetan eta Eibarbusen dagoz salgai, 5 eurotan (4 urtetik aurrerako umiak jarritta juan biharko dira, txixixaguak altzuan juan leikez).

Eguardixan osatuko dan giza-kataiaren harira, Bergaran egun osorako programia preparau dabe. Gune bi egongo dira: Bideberrin ume eta famelixendako puzgarrixak, Irrien Lagunak, apar festa, Herrixa Dantzan erromerixia eta Emon-en



kontzertua egingo dittue eta San Martin Agirre plazan kontzertua emongo dabe Gose eta Esne Beltza taldiak.

Merkataritza elektronikuan trebatzen

Datorren asteko eguenian "Zure e-commerce dendari etekin handiena ateratzeko modua" jardunaldixa egingo da Debegesan, 14.00etatik 16.00etara. On-line dendiarri etekiñik haundixena zelan etara erakusteko jardunaldixan hitzaldixa eskindu eta enpresa biren kasu praktikuak azalduko dittue. Parte-hartzia duan da, baiña juan nahi dabenak aldez aurretik izena-emon biharko dau www.debegesa.com atarixan, 943820110 telefonora deittuta edo pymes@debegesa.com helbidera idatzita.



- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net



Iradi
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Denok ikusi ditugu tabakoa betirako lagatzea agintzen diguten produktuak eta bestelakoak iragarkietan, baina askok ez dute jakingo gaur egun, norberaren sendagilearengana laguntza bila joanda, erretzeari laguntzeko baliabide eta tratamenduak eskaintzen dituztela anbulategietako kontsultetan. Jesus Gomez eta M^a Jose Reyes tabakoari aurre egiten laguntzen duten sendagile horietako bi dira eta, besteak beste, orain dela urtebete abiatu ziren taldekako saioen berri eman digute.

JESUS GOMEZ / M^a JOSE REYES (sendagileak):

“Zigarroa pizteko gogoak BAKARRIK MINUTU PARE bat irauten du”

- Zuen kontsultara erretzeari laga nahi dion norbait ailegatzen denean, nola laguntzen diozue?

Horrelakoetan, familia-medikuek erretzeko ohitura galtzeko tratamendu pertsonala egiten diogu erretzaileari. Ezer baino lehen galdetegi bati erantzuteko eskatzen diogu eta, ematen dituen erantzunen arabera, berarentzat egokiena izan daitekeen tratamendua ipintzen diogu. Horrez gain, kasu batzuetan erretzaileek tratamendu pertsonala baino zerbait gehiago behar izaten dute tabakoari aurre egiteko eta, horrelakoetan, taldeka lantzen ditugun saioetara etortzeko aukera badutela azaltzen zaie, parte hartzera animatzeko.

- Eta nolakoak dira taldeka lantzen dituzten saioak?

Erretzeari lagatzeko ikastaroen egitura irarritzen diogu eta, bost saio egin eta gero, parte hartu dutenek erretzeari lagatzeko prest daude. Lehen saioa erretzeari laga baino 15 egun lehenago egiten da eta beste ezertan hasi baino lehen, medikuak berak edo erretzeari lagatzeko taldeetan gurekin batera diharduen Ana Fernandez erizainak bakarkako elkarrizketa

egiten dugu eta, horrekin batera, test baten bitartez tabakoarekiko duen dependentsia maila neurtzen diogu eta ikastarora nolakoak izango den azaltzen diogu, besteak beste. Lehen saio horretan tabakoaren inguruan dauden hainbat mitori buruz berba egiten dugu eta erretzeari lagatzeak dakarren onura-zerrenda luzea ere esplikatzen zaie.

- Eta aurkezpen moduko hori egin eta gero, nolakoak dira gainontzeko saioak?

Bigarren saioa erretzeari laga baino 8 egun lehenago egiten dugu eta, horretan, erretzeari lagatzeko prestatzen ditugu. Erretzeari lagatzea errazten duten hainbat aholku ematen dizkiegu, erretzeko antsietatea agertzen denerako konplize modukoa bilatzeko gomendatzen diegu, autokonfidantza indartzen laguntzen zaie eta erretzeko arazoak zeintzuk diren ere azaltzen dizkiegu. Hirugarren saioa erretzeari laga baino egun bat lehenago egiten dugu eta horretan erretzeko gogoari nola eutsi erakusten ahalegintzen gara eta abstinentsia sindromeari aurre egiteko baliabideak ere ematen zaizkie.

- Gogorra da abstinentsia sindrome hori gairiditzea?

Zigarroa piztu eta erretzeko desioak oso gutxi irauten du, minutu bat edo pare bat baino ez dira. Horregatik, erretzeko gogo hori burutik nola alden du dezaizaten azaltzen dugu, atentzioa beste zerbaitetan

ipintzearekin batera, erretzeko gogo horrek alde egingo duelako.

- Eta erretzeari laga diotenean, zeri erreparatzen diozue ondorengo saioetan?

Erretzeari laga eta zazpi egunera egiten da laugarrena eta batez ere abstinentsiari aurre nola egin berrindartzeko eta berriz erretzen ez hasteko kontuetan ipintzen dugu arreta gehien. Horrekin batera, dolurako prestatzen ditugu. Izan ere, erretzaileak tabakoa urteetan beti aldamenean izan du eta, alde horretatik, tabakoa albo batera lagatzean, erretzaileak ospakizun eta une txarretan beti aldamenean izan duen norbaiten falta sentitzen du. Horregatik, hutsune hori betetzen laguntzen ahalegintzen gara. Eta bosgarren eta azken saioan jarraipen modukoa egiten dugu, zer moduz dauden-eta kontatzeko. Hortik aurrera, jarraipena telefonoz egiten dugu, bi, sei eta hamabi hilabetera deitu eta galdetuta.

- Nolako jendeak jotzen du zuengana tabakoa lagatzeko laguntza bila?

Erlatiboki gazteak izaten dira, 35-50 urte bitartekoak, asko guraso direnean animatzen dira eta, gainera, adin tarte horretako jendeak tabakoaren arazoaren inguruko kontzientzia daukala ikusten da. Adin batetik aurrera, 65 urte bete ondoren, oso zaila da erretzeari lagatzeko gogoia izatea, sarritan tabakoari lotutako gaixotasunak izaten dituzten arren.

“Sindrome fisikoa erretzeari laga eta HAMABOST EGUNERA desagertzen da”

Tantanez Tantan Eibarren euskaraz bizi!

Urtean zehar, Eibarren, euskeraren aldeko hainbat ekitaldi antolatzen ditugu, baina tartean badugu bat, eibartarrentzat berezia dena: herriko euskalgintzaren eskutik antolatzen dugun Tantanez Tantan edo Gantxillaren jaia moduan eza-gutzen duguna. Bi urtetik behin egiten den ekitaldiak 4. edizioa beteko du aurten, eta aurreko urteetan egindakoari jarraituz, 13.00ean Urkizuko iturrian gantxilla urez bete eta Untzagaraino eramango da, antolatzaileen berbetan "eskuz esku giza katean, eibartarrok euskaraz bizi nahi dugula berri-ze ere aldarrikatzeko. Herriko elkarte eta talde guztiei egin diegu gonbidapena baina ekimena nahi duten guztientzat irekia izango da". Antolatzaileek herritar guztiak animatu nahi dituzte, Untzagaraino joango den giza katearekin bat egin dezaten.

Hiru zatiko ibilbidea

Aurtengoan ere ibilbideak hiru zati izango ditu: Urkizulbarkurutze, Ibarkurutze-An-



Untzagako ekitaldiekin amaituko da Gantxilla Eguna. LEIRE ITURBE

bulategia eta Anbulategia-Untzaga. Antolatzaileek diotenez, "gonbidapenak egiterako orduan talde bakoitzari tarte bat egokitu diogu, tarte bakoitzean jendea egongo dela ziurtatzeko, baina gainontzeko herritarrek nahi duten lekuan egoteko aukera izango dute. Horrez gainera, lepoan koardodun zapia eramatea ere eskatzen dugu". Urkizutik irten nahi duenak 12.30etarako ber-

tan egotea komeni da. Gantxilla 13.00ean irten-go da Urkizutik, "aurten Gurasoak Berbetan mintzapraktika egitasmoko kideek beteko dute gantxilla, euskeraren transmisioaren alde egiten duten lanaren errekonozimendua izango da. Eta hortik Aurrera, eskuz esku giza katean, Untzagaraino joango gara".



Ekitaldiaren parte-hartzaileak eta ordena

URKIZU-IBARKURUTZE

Asola Berri / Urkizu Herri Ikastetxea / Juan Antonio Mogel Ikastola eta bertako Guraso Elkarte / Gaztetxea / Goruntz abesbatza / Trikitilariak / Andirao baserriarren Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkartearen bazkideak / Berbetan / J.A. Mogel Ikastolako hankapaloak / La Salle Azitain / Aldatze / Hizkuntza Eskola / Eibar arte / Ustekabe / Sindikatua / Badihardugu

IBARKURUTZE-ANBULATEGIA

Dendarien Elkarte / Debarbarreneko Bertso Eskola / Itzio BHI / Ignacio Zuloaga institutua / San Andres ikastetxea / Jaixak Herrixak Herrixantzako / Usartza Txistulari Taldea / Ikasten / Kaleetan Kantuz / Nagusien komisia / Legarreko musika taldeak / Zeramika Eskola / Marrazki Eskola / Alderdi politikoak / Txirindulari Elkarte / Sostoa / eibar.org / Ernai / Zona 10

ANBULATEGIA-UNTZAGA

AEK / Udal Euskaltegia / Urvat / Eibar Rugby Taldea / Eibar Kirol Elkarte / Aspe / Arrate Kultur Elkarte / Arrateko Andra Mari ikastetxea / La Salle Isasi / Klub Deportiboa / Musika Eskola / Amaña ikastetxea / Urki Futbol Taldea / Unibertsitate Laborala / Dantza Garaikidea / Eskubaloi Taldea / Haur Eskolak



Ohikoa denez, Urkizutik abiatuko da Gantxillaren ibilbidea. LEIRE ITURBE

BERTSOA DOINUA:

"Triste bizi naiz eta..."

- | | | |
|--|---|--|
| <p>1)
Urkusuko iturrian nagusi, heldu, haur euskalzaletasunak elkartu gaitu gaur. Untzagaraino goaz pozik eta ziur aho bete euskara gantxilla bete ur.</p> | <p>2)
Gantxilla eskuz esku eta buruz buru, elkarlanari esker Untzaga helburu bidean ongi doa poliki, seguru. Euskararekin berdin egin behar dugu.</p> | <p>3)
Guztiok euskararen alde egon arren, hori nahikoa denik ez pentsatu arren. Begiratu gantxillak zer mezu dakarren: Euskara hutsez bizi nahi dugu Eibarren.</p> |
|--|---|--|

Plazatik Gaztetxera azken txanpan sartu da

Eibarko gaztetxeak Euskal Herri mailan jokatzeko ari den Plazatik Gaztetxera XIII. Bertsolari Gazteen Txapelketako kanporaketa hartu zuen aurreko asteko barixakuan. Antzuolako Gaztetxea, Mutrikuko Gazte Asanblada, Akerbeltz Gaztetxea, Debako Gazte Asanblada, Elgoibarko Gazte Asanblada, Soraluze-ko Gazte Asanblada eta Eibarko Gazte Asanbladak antolatutako Plazatik Gaztetxera Txapelketa maiatzaren 9an abiatu zen Antzuolako gaztetxean eta Soraluzen amaituko da, maiatzaren 31n. Txapelketaren barruan zazpi saio egingo dira guztira eta parte hartzen duten 32 bertsolariek herririk herri egiten ari diren kanporaketetan euren onena ematen dabilta eta, aurreko edizioetan egindakoaren bidetik, aurreko ere bikoteka dihardute bertsotan.

Bertaratutakoek diotenez, "Urkizu aldean ospatzen ari ziren jaietako musika hotzak kanporaketa apur bat lorrindu zuen arren, bertsolariek kontzentrazioari eusteko gauza izan ziren eta ale ederrak entzu-



Bertsolari guztiek liburu erotiko bana eraman zuten etxera. LEIRE ITURBE

teko aukera izan genuen Eibarko gaztetxean batutako 60 bat lagunek". Saioan bertsotan jardun zutenetako batzuk finalurrekoetarako txartela eskuratu zuten, baina edozein modutan ere, inor ez zen esku

hutsik etxera bueltatu, txapelketa antolatu duten gazteek bertsolari guztiei liburu erotiko bana oparitu zieten-eta. Eibarko kanporaketan Jon Gurrutxaga & Josu Oiartzabal, Jon Mikel Mujika & Aimar Goenaga, Eneritz Arzallus & Eneritz Artetxe eta Manu Goiogana & Jokin Bergara lehiatu ziren eta Eibarkoarekin batera, beste hiru kanporaketa jokatu dira Antzuolan, Mutrikun eta Deban. Beraz, lau kanporaketak jokatu eta gero, gaur Markina-Xemeinen eta bihar Elgoibarren jokatu diren finalerdietan arituko diren bertsolari-bikoteak erabakita dago. Markina-Xemeineko saioan Adur Gorostidi eta Asier Azpiroz; Manu Goiogana eta Jokin Bergara; Maddi Sarasua eta Manex Astigarraga; eta Eneko Arrate eta Malen Amenabar lehiatuko dira. Eta bihar Elgoibarren egingo den saioan, berriz, Mikel Artola eta Haritz Mujika; Amaia Iturriotz eta Mikel Iturriotz; Eneritz Arzallus eta Eneritz Artetxe; eta Saioa Alkaiza eta Irati Majuelo arituko dira nor baino nor.

Gazte Egunerako kamiseta bila

Badira aste batzuk Jaixak Herrixak Herrixandako elkarteak sanjuanetarako egitaraua eta bestalakoak prestatzeko asteroko bile-



Urteroko moduan, Gazte Egunerako kamisetak eramango duen diseinua aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. LEIRE ITURBE

rekin hasi zirela. Barixakuero Txaltxa Zelaiko kioskoan 19.00etan egiten diren batzarretara joandakoek gogotik dabilta beharrez "jai euskaldun, parekide, parte-hartzaile eta herritarren aldeko" jai egitaraua prestatzen eta, aurreratu dutenez, laster horren berri emateko moduan egongo dira. Baina bien bitartean, Gazte Eguneko kamisetaren diseinua aukeratzeko lehiaketa antolatu dute eta, norbait parte hartzera animatuz gero, oraindik badauka horretarako aukera, diseinuak entregatzeko azken eguna maiatzaren 30a da-eta (jaixakherrixakherrixandako@gmail.com helbidera bidali behar dira). Antolatzaileek kontuan hartzea komeni den pare bat kontu argitu nahi izan dituzte: diseinuak kamisetaren aurreko aldean jartzeko modukoak izan beharko dira eta, horrekin batera, "Jaixak Herrixak Herrixandako" esaldia ondo ikusi beharko da. Irabazlearen diseinua gazteen kamisetetan erabiliko dute eta egileari txosnagunean egingo den bazkarirako lau txartel oparituko dizkiote.



Dana antolatuta dake Eibarko Klub Deportiboko Kultura Batzordekuak. Aurreko asteko eguenian aurkeztu eben gaurtik domekara arte iraungo daben programaziñua eta ondo betetako egitaraua dake prestatuta. Udala, Debemen, Arrate Kultur Elkartia, Oberena eta Direna Banaketak lagun izango dittue babes lanian eta aurreko urtietako bidetik jo dabe oinguan be, 1965ian jaixotako asmuak datorren urtian mende erdixa beteko daben bezperako kultur emonaldixan. Dantzak izango dira ardatz, baiña bestelako ekitaldixak faltako: magia, kantuak, umiendako jolasak, azokia, herri-kirolak, kantu-afarixa, Ezpalak jaialdixa, herri-bazkarixa... Eta, aittatutako babesliekin batera, herriko hainbat soziedadek eskindutako laguntasunarekin. Hori, antolaketan zuzenian, "parte hartzen daben beste 60 bat lagunak osatutako lan taldiarekin batera".



Lastua jaso, lastua bota, ingudia eta tronza izango dira herri-kiroletan. LEIRE ITURBE



Eibarko Euskal Jaixa, urrezko ezteien bezperan

Ttunttuneruak dantzari begira izango dira aurtengo protagonistak domeka eguerdixan Untzagan egingo dan dantza jaialdixan (beti be, eguraldixak ez badau karpan egittera bihartzen). Ohikua dan moduan, 12.30xetan hasiko dan naziñoarteko ikuskizunak Urkizu parketik urtengo daben Euskal Jaiko kalejiria izango dau aperitibo. Hor izango dira, Ezpalak jaialdiko talde guztiekin batera, gaiteruak, joaldunak, Eibarko Musika Eskolako eta Jainagaren eskolako trikitilarixak eta, berezittasun moduan, aurtengo jairako alkartzia lortu daben txistulari talde edarra be. Txistua eta danboliña, txirula eta ttunttuna: euskal folkloriak eskintzen deskuen sinboluetakuak dira txistularixak eta danbolinteruak. Maixu haundixak izango dira gurian: Ingalaterrako Stephen Rowley *pipe and tabor* jotzaillia Feet Togheter Jump! taldeko Alex Merry dantzarixarekin etorriko da; Tarragonako Cambrils herriko Angel Vallverdu *flaviolairea* bertako *ball de bastons* dantze-



Larrain-dantzak itxiko dau, aurtan be, Euskal Jaiko egitaraua. LEIRE I.

kin; Zamorako Muelas del Pan herriko dantzarixak Mario Martinez Roncero danbolinterua izango dabe lagun; Berrizko San Lorenzoko dantzarixak German eta Jon Aldekoaren doiñueri jarraituko detse; Lapurdiko Ataitze dantza taldiak Xabier Itzaina txirulari eta ttun-ttun jolia izango dabe gidari, eta, azkenik, gure herriko Kezka Dantza Taldiak Andoni Altzibar, Iñaki Barua, Jose Miguel Laskurain, Amaia Baglieto eta Roberto Al-

tzerrekak jotako doiñueri jarraituko detsa.

Domekan dantzan egitteko aukeria nonahi eta noiznahi izango da. Aittatutako jaialdixari, karpan egingo dan herri-bazkarixaren ondoren, arratsaldeko erromerixiak eta larrain-dantzak jarraituko detse-eta. Aiko taldiak zuzenduko daben erromerixia 17.00etan hasiko da eta larrain-dantzak bi saio izango dittue: 19.00etan Untzaga plazan eta, handik ordubetera,

20.00etan, Deportibo parian. Hori bai, antolatzaillak diñosen moduan, "basarritar jantzitta askoz luziadiagua izango da dana". Animo, ba, eta emon eskal ukittua asteburuari.

Zapatuan be ezifñ etxian geratu

Egitarau bete-betia prestau dabe Deporreak bixarko: hor be urterokuari jarraitu detse eta goiz-eguerdiko artisau eta basarritarren azokiak eskintza politta egingo desku 10.00etatik 14.00xak arte. 32 artisauk kosmetika naturala, telazko marko eta panpiñak, zillarra, ume erropa pintatua, narrua, artillia eta liburua, tela pintatuak, serigrafixia, argazkilaritza, bitxiak, beira, burdiñazko lanak, egur tailla, zeramika, diseiñu grafikua, txotxongilluak, harri pintatuak, papel machea, pifllokak... ikusi eta erosteko aukeria eskinduko dabe.

Herrixan produzitzen dana be ikusi eta dastatzeko aukeria izango dogu. Zelaieta, Sumendixa, Barrundi, Mendigoitxi eta Gisasola euren barazkixekin, Sosola ogixa eta gaztaiarekin, Madiola gaztaiarekin eta Gorostixa pastelekkin kaleratuko dira.

Badago, dana dala, barrittasunik horren inguruan, Kultuk bultzatutakua: 11.30xetatik aurrera **dastaketa gastronomikua** antolatu dabe basarriko produktuekin. Ekimen hori Debenek tokiko kontsumuaren alde egitten diharduen kanpaiñaren barruan kokatu geinke. Kultuko sukaldarixak prestatuauo dittuen mokaduak doan dastatu ahal izango dira; hori bai, aurretik tiketak hartu biharko dira.

Betiko moduan, 11.45etan herri-kirolak eta bertolarixak izango dira Toribio Etxebarrian



Herriko basarritarrak kalera urtetzen animatuko dira euren produktuekin. Zortzi basarri izango dira bixarko azokan. LEIRE ITURBE

eta 12.30xetan Eskolen arteko VII. herri-kirol lehiaketia jokatu da, neska-mutillak mundu horretan murgiltzeko aukeria eskintzen daben ekitaldixa. Mogel-Isasi, Aldatze eta Itzioko ikasliak izango dittugu horko protagonista.

Arratsaldian Bentazarreko Mutiko Alaiak etorriko jakuz Urretxu-Zumarragatik eta gabian, zelan ez, kantu-afarixak girua ipiñiko dau karpan.

Gaur be adin guztietarako

Txikixenetatik hasitta eta helduenganaiñoko ekitaldixak izango dira gaur bertan. Kalian Jolasian-ek 17.00etatik 19.00ak arte 5etik 7 urtera arteko umientzako jokuak prestatuauo dittu; 19.30xetatik 22.00ak arte Eibarko Kantuzalien hitzordua izango da; eta 23.00etan Imanol Ituiño maguak helduentzako ikuskizuna eskinduko dau Untzagan prestatuauo karpan.

BOZKATU



I AM
BASQUE

**EUSKADI
GEHIAGO**

IZASKUN BILBAO BARANDICA



EAJ
PNV

**EUROPA
BERRIAN**

www.izaskunbilbao.eu



+ OSASUN GUDA

Dentistak

ARAT Hartz Klinika
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA



Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura

Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...

UniverSalud

TORIBIO ETXEBARRIA, 4-1. Esk. Telf: 943 20 18 51

RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

RPS: 53/13

bista eder
clínica dental - hortz-klinika

Asko dira
gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE
ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

Bista Eder, 19 943 70 00 82

hartz-klinika
B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85

Estetika klinika

abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia ume eta helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea
RPS 195/11

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAQUETA, 20
Tlf.: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA ZENTRUA

GASTESI
Hartz-Klinika
Ane Gastesi



Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskua 943 70 00 90

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 943-702896

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI 901 kolegiatu zkia. OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA

S. Agustin, 2-4 - M lokala Tel. 622 14 58 58

**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

+ OSASUN GODA

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuareta
943 20 19 82

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinikia

• Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41



Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807

Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua

- Masterra Praktika Klinikoa
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
- - - - - (Ume eta helduendako) - - - - -

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA

Arrate Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
a_garitaonandia@hotmail.com



Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023



**HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu ...
... deitu 943-206776 telefono zenbakira**

LAU PUNTUKO ALDEA HIRU JARDUNALDIEN FALTAN

Eibar Foball Taldea 1. mailatik gero eta gertuago

A Coruñako Deportivorekin bana berdindu eta gero, Gaizka Garitanoren taldeak beste urrats bat egin du 1. mailara igotzeko bidean. Depor menpean izan zuten, batez ere bigarren zatian, eta estrategia jokaldi batean Jota Peleteirok berdindu egin zuen lehen zatian galiziarrek, Realak lagatako Ifran aurrelariaren gol batekin, lortutako abantaila. Atzetik duten Las Palmas eibartarrendik lau puntura dago liga amaitzeko hiru jardunaldi besterik falta ez direnean. Horieta bihurrengo biak, hain zuzen- Ipuruan jokatu ditu Eibarrek, Alavesen eta Lugoren aurka, eta litekeena da, gauzak bide onenetik joz gero, domekan

bertan lehen mailara igotzea. Horretarako, Eibarrek Alavesi irabazi beharko dio domekan 20.15etan jokatu den partiduan eta Las Palmasek eta Murtziak galdu edo berdindu.

Madriren ere presente

Kapital-zabalkuntzaren fasean buru-belarri murgilduta, taldeko zuzendaritzak hainbat ekimen abiatu ditu helburua lortzeko bidean. Kapitalaren herena batu dute orain arte eta martitzenean, esaterako, Madrilgo Euskal Etxean jaso zuten kirol eta kultur munduko babesa: han izan ziren Garate, Xabi Alonso, Illarramendi, Iñaki Gabilondo..., hainbat politikariek batera. Bestal-



Peleteiro, Dani Garcia eta Gilvan Riazorren lortutako gola ospatzen.

de, egun hauetan ere EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiak hainbat proposamen bultzatu dituzte Espainiako Kirol Kontseiluak ezarritako baldintzak aldatu ditzaten.

Bazkide gehiagorik ez

Egoera berriarekin asko dira bazkide egin direnak (3.515 gaur egun) eta, Ipurua aforoa kontutan izanda, izenemateak gelditzea erabaki da.

Hiru txapelketa Urbateko igerilarientzat

Asteburu mugitua izan zuten gure herriko igeriketa klubeko gazteenek. Sei izan ziren Azpeitian jokatu aletako Gipuzkoako eskolartekoan, igerilari osoa deitzen zaionean (estilo guztietan jarduten dute) parte hartu zutenak. Zapatu horretan Azkoitian lehiatu zuten Urbateko beste lau igerilarik parte-hartze eta igeriketa egokituko ligako azken jardunaldian. Eta, azkenik, Gipuzkoako eskolarteko 30. txapelketan, maila ona eman zuten Jon Osak, Ekhi Zubiaurrek eta Jone Ulaziak; azken honek, gainera, domina irabazi zuen 100 bizkarreko proban.



Monika Basurko, Inge Erkiaga, Marta Lopez de Gereñu, Kai Zubiaurre, Lucas Zamakola eta Asier Sobron.



Eibarko Txori Lagunak nagusi txapelketetan

Gure herriko taldearen ordezkariak nagusitasun handia erakutsi zuten bai Azkoitian (hilaren 11n jokatu den Gipuzkoako txapelketan) eta baita Deban ere (asteburuan jokatu den Euskadikoan). Txoriek eguraldia ez zuten lagun izan Azkoitian; baina, hala ere, Asier Fernandez onena izan zen kardantxiloetan eta Patxi Luke kardantxiloen mistoetan eta beste lau txori sailkatu ziren Euskadikorako. Debako azken horretan Asier izan zen nagusi berriro eta hilaren amaieran Jaenen jokatu den Espainiakoan izango da bi kardantxilorekin. Jose Luis Asierren aita eta Patxi Luke ere han izango dira, bakoitza txori batekin.

F-Zaletuaren egun handiaren bezperan



Esmorgak eta Koskorrek jokatu dute bihar goizean Unben, 10.30etatik aurrera, foball zaletuaren Kopako finala. Koskor Areto baino gehiago izan zen (3-lekoak hori adierazten du) eta Esmorgari askoz gehiago kostatu zitzaion Oishi Tankemans makurtaraztea: bana berdindu eta gero, penaltiek egin zuten aukeraketa. Partiduaren amaieran Ligako eta Kopako sariak banatu dira.

Sei domina Kalamuarentzat jiu-jitsuko Espainiako Kopan

Ekialdeko kirol modalitate horretan iaioak dira eibartarrak eta hori erakutsi zuten beste behin Mostoleseko Joan Miro kiroldegian jokatutako VI. Kopan. Estatuko 150 bat kirolari izan ziren parte hartzen eta sei dominen jabe egin ziren: Iker Martinezek urrezkoa irabazi zuen, Eneko Aburuzak zilarrezkoa eta Abde-rrahim Elbakalik, Julen Ramonek, Niko Ferre-rrak eta Eneko Loresek brontzezko bana.

Domekan, bestalde, Gipuzkoako txapelketa jokatu zen alebinetan eta hor brontzezkoa eskuratu zuen Unai Soralezek, proiektzio bakain bati esker bost segundotan markatutako ippon-arekin. Gaizka Merino eta Asier Nuñez bosgarren postuan sailkatu ziren. Asteburu honetan maila bereko taldekakoa izango da jokoa.



Waterpolista gazteenak Zaragozan

Aurreko asteburuan Urbat waterpoloko infantil mailako taldeak estatu mailako txapelketa jokatu zuen Zaragozan. Zapatuan Zaragozari 10-8 irabazi, Majadahonarekin launa berdindu eta Montjuic-ekin 2-5 galdu ondoren, hamasei talde onenen sartzea lortu zuten eibartarrek. Jarraian, domekan galdu egin zuten Bartzelona txapelketa irabazteko hautagai nagusiarekin (3-11), hori Moscardo eta Zaragoza

waterpolo eskolakoei irabazi zurretik. Azkenean 11. postuan amaitu zuten, talde euskaldun onena izateko. Horrez gain, Eibarko neska-mutilek aukera izan zuten Miki Oca (Espainiako nesken selekzioaren hautatzailea) eta Gaby Hernandez (mutilena) ezagutzeko. Waterpoloan jokatu nahi duzuenok (neska zein mutil) aukera duzue www.urbat.es webgunean zuen datuak emateko.

Omenaldia Juan Mari Romerori

Aurreko zapatuan Eibarko Txirindulari Elkarteak Juan M^a Romero Zuzendaritza Bartzordeko kidea (*argazkiaren erdian, txapelarekin*) omendu zuten Lasturreko Sakan, klubarekin 25 urtetan lan egin ondoren. Eskuman Iñaki Larrañaga bere aitabitxi edo



padrinoa eta margolari eta artista ezaguna agertzen da eta, bere aldamenean, Josemi Solozabal elkartearen babesle fidela eta txirindularizale handia, autobusa lagun.

Herriko foballariak protagonista

Athletic-eko Markel Susaetak berriro lortu du ligako partidu guztiak jokatzea, orain dela bi urte (Marcelo Bielsa entrenatzailearen lehenengoa) egin zuen moduan. 2. A mailara igotzeko promozioan, bestalde, Josu Hernaez Sestaoko kapitainak taldearen lehenengo gola sartu zuen Las Llanasen Albaceterekin hiruna berdindutako partiduan. Alex Albistegik ere gola sartu zuen Toledorekin Salto del Caballon Lleidarekin bana berdindutako neurketan. Azkenik, Jon Larreategik Amorebieta laga eta Barakaldorekin saiatuko da hurrengo denboraldian 2. A mailara igotzen.

berriak

ARETO-FOBALLA

Debabarreneko kadete mailako Sukia taldeak 3-2 irabazi dio Usurbil taldeari azken jardunaldian. Aurretik ere matematikoki ziurtatuta zuen sailkapeneko bigarren postua. Bestalde, jubencil mailako King Kong taldeak 0-10 galdu zuen Levante handiarekin Elgoibarko Olaizaga kiroldegian jokatutako Espainiako txapelketako kanporaketan.

PILOTA

Gaur, 19.15etan hasita, bi pilota partidu hartuko dituen jaialdia izango da Astelenan. Hasteko, Klub Deportiboko alebinen arteko neurketa izango da: Camina eta Simon Sanchez eta Azkargortaren aurka. Eta, jarraian, Udaberri Torneoko kaiolaren barruko partiduan, Arribillaga eibartarra Errenteriako Aranburu izango du aurrez-aurre. Deba Arroko ligaxkan, bestalde, Arribillaga-Erik bikoteak 22-3 irabazi zuen Arrasaten azken asteburuan.



Deltecoko beterranoak nagusi Gorlizen

Sasoitsu dabilta Deltecoko triatloilariak. Horrela, astebete lehenago Salouko ironman erdian egin bezala, Edu Oiarzunek v2 beterrano mailako onena izan zen zapatuan jokatutako Gorlizeko triatloian. Hori gutxi balitz, Alejandro Altuna taldekidea izan zuen atzetik sailkapen horretan. Jonatan Alustizak 118. postuan amaitu zuen proba berean eta Aitziber Urkiola podiumera igotzen berriro 23 urtetik beherakoetan mailan.



SAIOA CABAÑAS (argazkilaria) "Emarock-ek agerian jarri nahi ditu emakume musikariak"

Maiatzaren 30ean Emarock dokumentala aurkeztuko dute Beleko tabernan, 18.30etan. Eta 20.30etan Emarock-en parte hartzen duten hiru emakume eibartar musikarik, Kokein-eko Zaloak, Napoka Iria-ko Mirenek eta Mursegoko Maitek, elkarrekin emanaldi akustikoa eskainiko dute. Emarock kontzertuetako argazkiekin erakusketa egiteko proposamenetik jaio zen eta proiektuaren inguruko guztiak Saioa Cabañas (Gauilunak) argazkilaria azaldu dizkigu.

- Nola sortu zen Emarock?

Kontzertuetako argazkiekin Eibarren, KARRIKA tabernan, erakusketa ipintzeko proposamena egin zidaten 2010ean eta hor konturatu nintzen bakarrik emakumeen argazkiak erabilia erakusketa osatzeko materiala banuela. Bestalde, emakumeen argazkiak begiratzean, ia denak taldeetako abeslariak zirela ikusi nuen, oso gutxi zeuden gitarra edo beste instrumenturen bat jartzan eta neure buruari galderak egiten hasi nintzen: "Euskal Herrian eta dago bakarrik emakumeek osatutako talderik? Edo egon, badaude, baina nik ez diet argazkirik atera?". Musika ikasleen artean emakumeak gizonak baino gehiago izan arren, horrek ez dauka isladarik taula gainean. Emakume musikariak agerian jarri eta horien adibideari jarraituta beste batzuk eszenatokira igotzera animatzeko asmoz abiatu zen Emarock. Poliki-poliki proiektuari jendea batzen joan zaio eta dena kudeatzeko kultur elkarte ere sortu genuen eta proiektuari buruzkoak sare sozialetan eta www.emarock.com atarian jasotzen joaten gara.

- Zergatik ez dira ba eszenatokira igotzera animatzen?

Datorren astean Beleko aurkeztuko dugun dokumentala galdera horri eta beste batzuei erantzuteko oso egokia da. Proiektuaren ardatza musika egiten duten emakumeak izanik, adin eta toki ezberdinetako hamasei emakumekin elkarrizketak grabatu ditugu, bakoitzaren iritzia, pertzepzio eta bestelakoak jasotzeko. Dokumentala argazki erakusketari laguntzeko pentsatuta dago berez eta ez diogu soinurik gehitu. Grabazioan, besteak beste, IZARO ARAIZ eibartarrak jardun du beharrean.

- Nolatan zara kontzertuetako argazkilaria?

15 urte nituenetik beti ibili naiz kontzertu batetik bestera, kamera aldean nuela. Hasieran kamera txikia zen, denborarekin ekipoa hobetzen joan nintzen... Kontzertuetan egindako argazkiekin gauilunak.com webgunea daukat.

- Nolako izango da aurkezpena?

Niretzat gaur egun Euskal Herri mailan dauden hiru abeslari esanguratsuenak, hirurak elkarrekin zuzenean batera ikusteko aukera hori aparta da, ez da erraz errepikatuko eta aprobetxatzen ez duenak nekez izango du horrelako beste aukerarik.



Sanjuanetako kartela eta pegatina

Sanjuanen inguruan antolatutako kartel eta pegatina lehiaketarako lanak begiratu eta gero, Leire Kareaga, Asier Lopez de Viñaspre, Gorka Errasti eta Marina Barrenak osatutako epai-mahaiak aho batez erabaki du "Sanjuanak Eibarren" kartel lehiaketako saria Oihane Romarate Yarza, 20 urteko eibartarrari ematea, "Bai airetik, bai lurretik, dultzaineruak urtero gure kaleetatik" lanarengatik. Umeen artean, berriz, Garoa Magunazelaia Usobiaga (11-14 urte) eta Jon Martinez Agirrebeña (10 urtera arte) saritu dituzte. Aurten 79 lan lehiatu dira, 47 helduen mailan eta 32 umeen maila bietan. **Horrekin batera, jaietan larregi ez edateko umore kutsua duen pegatina irabazlea aukeratu dute aurkeztutako 14 lanen artean: Oscar Lopez de Zubiria Alvarez-en "Esan Sooooo alkoholari" izenburukoak jasoko du saria.**



Pello Zabalak eta Urko Aristik, jendea erakartzeaz gain, ETBko kamarak ere ekarri zituzten gurera. SILBIA HERNANDEZ



Jendetza eguraldiari buruzko hitzaldian

Martitzenean jende mordoak elkartu zen ...eta kitto! Euskara Elkartearen hitzaldi-gelan, eguraldiaren iragarpen kontuetan ondo baino hobeto jantzita dauden Pello Zabala eta Urko Aristik "Udarik... izango dugu aurten?" izenburuari jarraituta eman zuten hitzaldiak erakarrira. Hitzaldiaren berri jaso eta gaiarekin interesatuta, telebistakoak ere bertaraino etorri zitzaizkigun, hizlariaren pixka batean berba egin eta **ETB-1eko EH Zuzenean emititzera**. Gainera, bideoa www.eitb.com webgunean ikusgai ipini dute.

Umeentzako antzezlan bi

Debabarreneko Eskolarteko Eskola Antzerki Erakusketa azken txanpan sartu da, baina aurtengo egitarauari agur esan aurretik, oraindik antzezlan birekin gozatzeko aukera egongo da: datoren asteko martitzenean "Canciones de titiriteros", hiru urteko gorako umeentzat egokiak den musikala aurkeztuko du Los Títeres de Binefar talde aski ezagunak. Eta eguenean Gorkada Teatrok "Aladdin", txotxongiloekin antzezteko ipuin ezagunari egindako moldaketa euskaraz taularatuko du. FETEN Europako Umeendako Antzerki Azokan arrakasta ikaragarria lortu duen lan horretarako musika, bestalde, Fran Lasuen eibartarrak idatzi du. Antzezlan biak Hezkuntza Esparruko antzokian eskainiko dira, 15.00etan eta sarrera libre eta doan izango da.



Eibar Kantuan ETB-n

Beste batzuetan egindakoari jarraituta, Euskal Telebistak Eibar Kantuan jaialdiaren azken edizioan egindako grabazioa telebistan

emango dute, bihar (zapatua, hilak 24) ETB-1n 21.45etatik aurrera. Emanaldira joandakoei Latinamerikako doinuari eskainitako jaialdiarekin berriz gozatzeko aukera izango dute eta, bestela, egun horretan Aste-lena frontoira joateko aukerarik izan ez zutenek, eszenatokian eskainitakoak bihar etxeko pantailan ikus dezakete.



laburrak

ZINE BARIKO ASTEBURUA

Coliseo antzokian asteburuorok eskaintzen diren zine-emanaldietan etena egingo dute oraingoan eta, domekan Europako Parlamenturako Hauteskundeetan botoa emateko mahaietako batzuk antzokiko sarreran ipiniko dituztenez, asteburu honetarako zine emanaldirik ez antolatzea erabaki dute. Maiatzaren 31n (zapatuan) berriz helduko diote ohiko martxari.



HARTZEI BURUZKO HITZALDIA

Udal Euskaltegiak, Euskara Batzordeak eta udalak elkarlanean antolatuta, datorren eguaztenean, goizeko 09.30etan Fernando Garitagoitiak "Kantauriar mendietako hartzak" izenburuko hitzaldia emango du, Portalean (areto nagusian). Hitzaldia irekia bada ere, bereziki euskara ikasleei zuzenduta dagoela adierazi dute antolatzaileek.

M^a JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea
GINEKOLOGOA

Urkizu, 13 943-120200 eta 943-120204

LEKUALDAKETA
Eibarko
Centro Médico
Osasundegia



cmeibar@hotmail.com www.centromedicoeibar.es

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA eskaintzeaz gain, profesionaltasunari eta pazientearekiko tratu atseginari eusten jarraituko diogu.

MIKAITZ belardenda zena berriro zuekin IRATXE belardendan ONGI ETORRI DENORRI!!!

SAN AGUSTIN, 5
943 530 361

Belardenda
Iratxe

Osasun-zientziak eta ikastaroak UEUn

UEUren Osasuna Sailak antolatuta, datorren asteen, hilaren 30ean "Osasun-zientzien II. Topaketak egingo dira Eibarren, Markeskua jauregian, 09.00etan hasi eta 18.00ak bitartean (10 ordu). Osasun-zientzietako ikertzaileen bigarren topaketak helburu bikoitza daukela azaldu dute antolatzaileek: "Orain dela lau urte egindako topaketan parte hartu zuten taldeen ikerketa-lerroak zertan dabilztan aztertzea eta, horrekin batera, osasun-zientzietako ikerketa-talde berriak erakartzea. Era berean, osasun-zientzietan diharduten ikerlari euskaldunen sarea sortuko dugu". Matrikula bete nahi duenak eguaztenera arte izango du horretarako aukera (matrikula orokorrak 30 euro balio du; bazkideenak 20 euro; eta ikasle, langabetu eta erretiratuenak 10 euro).

Bestalde, urteroko moduan UEU-k Udako Ikastaroak antolatu ditu: Eibarren ekainaren 30etik uztailaren 4ra eta uztailaren 14tik 18ra emango dituzte; Baionan, uztailaren 9tik 11ra; eta Iruñean uztailaren 21etik 23ra. Informazio guztia www.ueu.org helbidean aurkituko duzue.

42. UDAKO IKASTAROAK 2014
www.ueu.org
 EIBAR ekainaren 30etik uztailaren 4ra eta uztailaren 14tik 18ra
 BAIONA uztailaren 9tik 11ra
 IRUÑEA uztailaren 21etik 23ra

Argazki erakusketak eta rallya



Orain dela asteburu bi argazki estudioa muntatu zuten. MAIALEN

Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek antolatutako Argazkilaritza Maiatzean amaitzear dago, baina zaletuek egitarauko hainbatekin argazkilaritzaz gozatzeko aukera badute oraindik, herriko hainbat aretotan ikusgai dauden erakusketak hilaren 31ra arte zabalik egongo dira-eta: Deporren "33. Argizaiola Lehiaketa" ikus daiteke; El Ambigu eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatuetxean Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoen lanen erakusketak daude zabalik; Topalekuan Jose Ramon San Joseren lanak daude; eta Portalean Portfolio Natural elkartekoen eta Enric Pamies eta Garcia de Marinaren argazkiak ikus daitezke.

Horrekin batera, domekan Argazki Rallya egingo da, zuri-beltzean zein digitalean. Parte hartu nahi dutenek 08.30etatik 09.30etara izango dute izena emateko aukera, Deporren eta irteera ere bertatik egingo da.

Napoka Iria eta Joseba Irazoki

Berreibar Ekimen Kulturalak maiatzerako antolatu dituen kultur ekitaldien egitarauari agur esateko, domekan 19.00etatik aurrera kontzertu bikoitza hartuko du Bittor Sarrasketa kaleko Bektokixak: Napoka Iria eta Joseba Irazoki, biak zuzenean entzuteko aukera izango dute bertara joatera animatzen direnak.



Funeraria-Ehortzetxe Mugica

EIBAR Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	ELGOIBAR Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Bulegoa Eibarko erdialdean Bulegoa Bidebarrieta, 20	
24 orduko zerbitzu iraunkorra 943 20 19 51 www.funeuskadi.com	
Euskadiko Lehen Ehortze Taldea GRUPO Funeuskadi	

IBIALDIA GERNIKA-LUMO 2014
 euskararen bihozferak
 Ekainak 1

AUTOBUS Irteera: 09.30etan
 10 eurotan
 Buelta: 19.30etan **zerBITZUA**

ekainak 1

Bihozferak

J. A. MOGEL-EKO GURASOEN ELKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltzekotan: publizitatea@etakitto.com



Zorionak, KAILA, haraiñegun zure lehelengo urtia bete zenduan-eta. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAIALEN edar hori, bost urte bete dozuz-eta. Patxo potolo pillua zuretzat maitte zaitugun guztion partetik.



Zorionak, ADEI, gure erregiak astelehenian lau urte egingo ditutu-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Ekhiren partez.



Zorionak, ENDIKA, bixar hiru urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat Aitana, Aimar eta famelixaren partez.



Zorionak, GARAZI, haraiñegun 11 urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, SUGAR, astelehenian hiru urte bete zenduaz-eta. Jarraitu holan, mutiko haundi. Etxekuen partez.



Zorionak, CLAUDIA, atzo bi urte egin zenduaz-eta. Aitta, ama, aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, PABLO, gaur sei urte egiten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Aitorren partez.



Zorionak, ARATZ, Iturbe Arakistain, bixar bi urte betetzen dozuz-eta. Aitxixa eta amamaren partez.



Zorionak, GORKA, haraiñegun 10 urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IZARO, domekan bi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Enekoren partez.




Zorionak, ENARA, zure 3. urtebetetzian. Gure bizitzak haundi egiten jarraitzen dozuz. Etxekuen partetik.



Zorionak, ANER, bixar zortzi urte beteko dozuz-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, UNAX, domekan hiru urte egingo dozuz-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, AITOR, bixar urtetxua egingo dozu-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, EKHI, bixar bi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ANE, (astelehenian 11 urte egin zenduaz-eta), eta amatxo NEREA, (gaur beteko dozuz zeuriak). Patxo haundi bat bakotxarentzat famelixaren partez.



Zorionak, JOSU eta ANE, zuen zazpigarren urtebetetzian!! Aupa Eibar!! Muxu potoluak danon partetik.



Zorionak, ANDRES (gaur) eta EGOITZ (hillaren 26xan), sei urte beteko dozuz-eta. Maitte zaituztenen partetik.



Zorionak, ASIER (lau urte) eta JONE (12 urte), bixar vurtiak egiten dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, Ikerren partez.




Zorionak, AIORA (haraiñegun zortzi urte egin zenduaz-eta) eta OIER (9xan bete zenduaz-eta zeuriak). Muxu bana famelixaren partez.



Zorionak, EKAITZ eta ALAZNE!, zuen ezkontza egun eta urtietan. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, SABINA, gaur bi urte betetzen dozuz-eta. Patxo pillua famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL, eguaztenian bi urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, TELMA, martitzenian 3 urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.

BARIXAKUA 23

49. EUSKAL JAIA

17.00/19.00. Kalian Jolasian. Untzagan.
19.30/22.00. Eibarko Kantuzaleak kalerik-kale.
23.00. "Magia Parrastan", Imanol Ituñoren eskutik. Untzagako karpan.

BATZARRA

19.00. Sanjuanak antolatzeke, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Txaltxa Zelaian.

KONTZERTUA

00.00. "Hank Williams Tribute" taldea. Ez Dok tabernan.

ZAPATUA 24

49. EUSKAL JAIA

10.00/14.00. Artisau eta baserritarren azoka.
11.45. Herri-kirolak eta bertsolariak.
12.30. Eskolen arteko VII. Herri-kirol Lehiaketa. Toribio Etxebarrian.
18.30. Bentazarreko Mutiko Alaiak, Untzagako karpatik abiatuta.
21.30. Kantu-afaria.
23.00. Kantuak (Adolfo Jainaga eta Josu Garate) eta erromeria (Jainaga eta Narbaiza). Untzagako karpan.

FOBALL ZALETUA

10.30. Kopako finala: Esmorga - Koskor.
13.00. Ligako eta Kopako sari banaketa. Unben.

UMEENDAKO ZINEA

17.30. "Los Muppets" filmaren emanaldia. El Corte Inglesean.

LAR METAL JAIALDIA

23.30. Damudok, Ekinocio eta Dark Code taldeak. Ez Dok tabernan.

DOMEKA 25

ARGAZKI RALLYA

08.30. Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak antolatutako rally-rako izen-ematea (09.30ak arte). Irteera Deportibotik.

49. EUSKAL JAIA

12.00. Euskal Jaiko kalejira, Urkizutik hasita.
12.30. Ezpalak dantza jaialdia. Untzagan.
14.30. Herri-bazkaria. Untzagako karpan.
17.00. Erromeria (Aiko taldearekin).
19.00. Larrain-dantza. Untzagan.
20.00. Larrain-dantza. Depor parean.

FOBALLA

18.15. Kontzentrazioa Untzagan.
18.30. Kalejira, Ipuruaraino, "Udaberriak Eibar Primeran" Iemari jarraituta.
20.15. Eibar-Alaves partidua. Eibar FT-ko peñek antolatuta.

KONTZERTUA

19.00. Napoka Iria eta Joseba Irazoki. Bektokixan (B. Sarasketa, 7 - 1.).

ASTELEHENA 26

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" topaketa. Beheko Tokian.

HITZALDI-AURKEZPENA

19.00. "Hablar en publico" Manu Marañonen liburua. Portalean.

MARTITZENA 27

ESKOLA-ANTZERTKIA

15.00. "Canciones de titiriteros", Los Titrireros de Binefarren eskutik. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

17.00 & 18.30. Joskintza-tailerra. Portalean.

EGUAZTENA 28

HITZALDIA

09.30. "Kantauriar mendietako hartzak". Fernando Garitagoitia. Udal Euskaltegiak antolatuta. Portalean.

IKASTEN

11.00. Kafe-tertulia: "Aspectos positivos de la inmigracion". Untzagako jubilatutako etxean.

HITZALDIA

18.00. "Comer sano es divertido", Aurora Cid Alonsoren eskutik. Juan San Martin liburutegian.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatsaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

EGUENA 29

JARDUNALDIA

14.00. "Zure e-commerce dendari etekin handiena ateratzeko modua", merkataritza elektronikoari buruzko jardunaldia. Debegesan.

ESKOLA-ANTZERTKIA

15.00. "Aladdin", Gorakada Teatrotan. Hezkuntza Esparruan.

ODOL-EMATEA

18.30. Odol-emaileentzat saioa. Anbulatorioan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatsaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

hildakoak

- Antonio Simal Lertxundi. 70 urte. 2014-V-14.
- Joseba Montiel Aldanondo. 55 urte. 2014-V-16.
- Felix Jayo Agirreazaldegia. 77 urte. 2014-V-19.
- Nieves Arregi Baltzola. 85 urte. 2014-V-20.
- Anton Etxeberria Sarasketa. 85 urte. 2014-V-21.

jaiotakoak

- Naroa Mutiola Zubizarreta. 2014-V-9.
- Janire Mutiola Zubizarreta. 2014-V-9.
- Irati Suarez De la Torre. 2014-V-13.

HOROSKOPOA

ARIES

Zuretzat asko esan nahi ez badu ere, asko da berarentzat. Pozik jarriko da egin duzunarekin. Edozer eskatu diezaikezu.

TAURUS

Hainbat gauza ospatzeko aitazakiak izango dituzu hurrengo astean. Irten kalera eta ondo pasatu: dibertitzea besterik ez duzu.

GEMINI

Lasai egoteko sasoa da zuretzat, azken asteotako estresa atzean lagatzeko unea. Zure gauzetan pentsatu besterik ez duzu.

CANCER

Ez pentsa mundua zuk sortu duzunik; apalagoa izatea ez litzazuke txarto etorriko. Izan gogoan aholku hori!

LEO

Susto ederra hartuko duzu! Konponduta zegoela pentsatzen bazenuen, arazoa hasi besterik ez da egin. Ea pasatzen zaizun!

VIRGO

Iraganeko argazkiak ikusi eta atzean laga duzunaz jabetuko zara. Hala ere, baikorra zara eta aurrera begiratuko duzu beti.

LIBRA

Zertarako animalia bat etxean? Ez duzu nahikoa esku artean dituzun gauzekin? Lehenik eta behin, txukundu zure bizitza!

SCORPIUS

Dei garrantzitsua jaso eta astebururako zenituen planak aldatu beharko dituzu. Lasai: plan berriak hobeak izango dira.

SAGITTARIUS

Asteburuan urduritasun unek pasatuko dituzu, baina asteleheneetik aurrera bikain moldatuko zara. Zoriontsu izateraino!

CAPRICORNIUS


Etorkizunera begira jarriko zara eta egin nahi duzun guzian pentsatzen. Astroek, behintzat, etorkizun polita ikusten dute.

AQUARIUS

Gauzak egun batetik bestera okertu daitezke; beraz, egon prest. Datorren astea nahiko konplikatua izango duzu.

PISCIS

Berri onak: ekonomia arloan zein familia aldetik. Azkenean lortuko duzu aspaldian itxaroten zenuen hori eta gehiago!



erakusketak

- ✓ **Maiatzaren 31ra arte**
33. ARGIZAIOLA LEHIAKETA. Depor tabernan. KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAREN argazki erakusketa. El Ambigu eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatuta etxean. JOSE RAMON SAN JOSEREN argazki erakusketa. Topalekuan. PORTFOLIO NATURAL elkartekoen eta ENRIC PAMIES eta GARCIA DE MARINAREN argazki erakusketa. Topalekuan.

lehiaketak

- ✓ **Li (buru-hausgarriak)**
Irakurzaletasuna sustatzeko lehiaketa, LH-ko 2. mailatik gorakoentzat. Liburutegian.
- ✓ **IV. Maskota Lehiaketa**
Uztailaren 5ean, 11.30etan. El Corte Inglesean, 3. solairuan.
- ✓ **Made In Eibar dokumental lehiaketa**
Lanak aurkeztea: irailaren 15etik urriaren 31ra arte, Pegoran. Informazioa: 943708437, www.eibar.net eta San Martin liburutegian.

ikastaroak

- ✓ **Yoga. Noiz eta non:** maiatzetik ekainera, martitzen eta eguenetan (12.00-13.30 / 17.30-19.00). Irakaslea: Marta Irusta. Arrate Kultur Elkartean. Prezioa: hileko 35 euro (30 bazkideek).
 - ✓ **Dantza Afrikarrak. Noiz eta non:** maiatzaren 22 eta 29an; ekainaren 5 eta 12an (eguenetan), 19.00-21.00. Irakaslea: Arantza Iglesias Arbizu. Arrate Kultur Elkartean. Prezioa: 45 euro (40 euro bazkideek).
- Izen-ematea:** Arrate Kultur Elkartean, astelehenetik eguenera (17.00-19.00); 943202299 telefonora deituta (mezua laga erantzungailuan); arratekultu@gmail.com helbidera deituta.

2			8			9		
		6	9	1		8		
	7			5				6
5			4					
		2				1		
					2			5
7				2			9	
	4		1		6	5		
		1			9			3

farmaziak

- ✓ **barixakua 23**
EGUNEZ Larramendi (Calbeton, 19)
- ✓ **zapatua 24**
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
- ✓ **domeka 25**
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **astelehena 26**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- ✓ **martitena 27**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguztana 28**
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguna 29**
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **barixakua 30**
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

SUDOKUA

2	6	1	9	7	5	4	3	8
9	8	5	3	1	4	7	2	6
7	3	4	6	2	8	9	1	5
6	2	8	1	9	7	3	5	4
4	5	9	8	6	3	1	7	2
1	7	3	5	4	2	8	6	9
5	9	6	4	3	1	2	8	7
3	4	7	2	8	6	5	9	1
8	1	2	7	5	9	6	4	3

AURREKOEN EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
- Gurutze Gorria...943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia943 03 25 00
- Torrekua943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiaki.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Eguzkerak: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Eguzkerak: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Eguzkerak: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Eguzkerak: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Eguzkerak: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Eguzkerak: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Soraluzen. 2 logela, egongela, sukalde eta komunak. 60 m². Berritua. Argitsua eta kanpora begira. Bero-gailu urdina. 69.000 euro. Tel. 617-207672. 19.00etatik aurrera.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibar/El-goibar inguruan. Tel. 637-363778.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 632-569245.
– Iggailua duen pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. Luzarorako. Tel. 615-709177.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logela, egongela, sukalde eta komunarekin. Tel. 632-192408.
– Pisua hartuko nuke errentan. 3 logela, egongela erta komunarekin. Tel. 632-192408.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Taberna txikia alokagai Urkin. Errenta eta fidantza merkea. Tel. 645-710439.
– Lokala partekatuko nuke. Prezio onean. Tel. 620-608065.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-120839.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 698-604531.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko arratsaldez eta asteburuetan. Tel. 645-366850.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 617-830030.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-121252 eta 603-740755.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 695-180539.
– Emakumea eskaintzen da soziedadek eta pegorak garbitzeko. Tel. 600-332954.
– Emakumea eskaintzen da soziedadek garbitzeko. Tel. 638-421827.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-057896.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta baita gauz ere. Tel. 660-511781 eta 943-742330.
– Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko (peoi edo ofizial), sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-192408.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. 13.00etik 20.00era. Tel. 658-458061.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 674-342769.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-865726.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 664-124325.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 697-372374.
– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 639-020081.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-981779.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 679-912841.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 638-560617 eta 602-037965.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko, igeltsero moduan eta baserrian lan egiteko. Gidatzeko baimenarekin. Tel. 688-302653 eta 631-470968.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125 eta 943-740655.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Orduka. Tel. 680-526228. Nury.
– Gizonezkoa eskaintzen da altzariak garraiatzeko, garbiketarako egiteko, lorategian lan egiteko eta gidari moduan. Tel. 660-213652.
– Gizonezkoa eskaintzen da igeltsero moduan, lorategian jarduteko, banaketak egiteko eta gidari moduan. Tel. 679-857409.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta abar. Erreferentziak. Tel. 632-253170.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 669-311385.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 636-362251.
– Mutila eskaintzen da igeltsero moduan, sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 630-564528.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako lan egiteko. Tel. 620-258708.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-395829.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lan egiteko. Tel. 695-144954.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 654-281645.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-711387.
– Emakumea eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Tel. 677-860971.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-771590.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan jarduteko. Erreferentziak. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia. Tel. 632-030789.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko: etxeak, tabernak, pegorak. Tel. 634-771382.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 631-282203.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta tabernan jarduteko. Tel. 636-419814.
– Mutila eskaintzen da gizonezko nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-506108.
– Emakumea eskaintzen da goizez edozein motako garbiketarako lan egiteko. Tel. 628-872295.
– Pedagogia ikasketak amaitzen diharduen irakaslea eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Tel. 677-591982. Igone.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-057896.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Asteburuetan bame. Tel. 633-244397.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernan laguntzaile jarduteko... Tel. 686-420642.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 648-196651.
– Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 606-502567.

4.2. Langile bila

– Sukaldari-laguntzailea behar da asteburuetarako. Tel. 620-810120.
– Emakume euskalduna behar da umea eskolara eramane eta etxea garbitzeko. Tel. 699-024156.
– Ileapaintzaile ofiziala behar da Eibarreko ileapaindegian. Tel. 943-207207.
– Gaztea behar da asteburu eta jaietan tabernan lan egiteko. Bidali curriculum-a kamarerobila@gmail.com helbidera.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Ekainerako piano irakaslea behar du saxoa jotzen duen mutiko batek. Tel. 943-701586.

5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klaseak ematen ditut: azterketetarako prestaketa, perfilak, EGA, ... Tel. 620-608065.


6. Denetarik

6.1. Salgai

– Baby Monitor Philips Avent jaioberriei entzutekoa salgai. Tel. 626-144098.
– Umeentzako motxila salgai. Denter markakoa. Tel. 626-144098.
– Gurpil-aulkia salgai. Ia berria eta motorraren. Motorra kobratuko da eta aulkia oparituko. Nagusiendako taka-taka ere salgai, otartxo eta guzti. Tel. 943-207731 eta 605-713975.
– Bigarren eskuko bizikletarako remolkekarroa erosiko nuke, bi haur eramateko. Tel. 660-840246.
– Mini-sehaska salgai, Micuna Smart markakoa. Ia erabili gabe. 150 euro. Tel. 669-947125.
– Labea salgai, taberna, okindegi edo dendan erabiltzeko modukoa. Baita ostalaritzako altzari gehiago ere. Urte eta erdi erabilitakoak. Tel. 615-719288.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA



Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 24 • 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 73 97 65



ERABAKITZEKO
ESKUBIDEARI

BAI



EMAN BOTOA **ehbildu**
herrikerabaki

GOGOTIK OSPATZEN ARI GARA

ZATOZ GIROAZ GOZATZERA!

Maiatzaren 26tik 31ra



Brikolaje erraza

IKASI ETA PARTEKATU
GURE TAILERREKIN

GOSALDU GUREKIN

ASTELEHENETIK LARUNBATERA.
9:30etik 10:30era

AURREZTU GUREKIN

ASTELEHENETIK LARUNBATERA.

-%20ko* dtu. garraio
eta instalazioetan

2x1* giltzen eta aginteen kopian

2x1* labanen eta guraizeen
zorrozketan

SINFIN BEZEROENTZAT BAKARRIK:

-%15* dtu. ateetan
(26, astelehena)

-%15* dtu. bainu-produktuetan
(27, asteartea)

-%15* dtu. pinturan
(28, asteazkena)

-%15* dtu. armairuetan
(29, osteguna)

-%15* dtu. tauletan
(30, ostirala)

-%15* dtu. lorategi-altzarietan
(31, larunbata)

*Deskontuak baliozkoak dira sustapenean adierazitako egunetan. Ezin dira beste sustapen/ eskaintza, zerbitzu eta ongiatorriko deskontu batzuetan erabili, ezta Sinfin txartelaren %10ekin ere, eta ez da aplikatzea indarrean dagoen foiltoaren produktuetara.

Gosariak
DOHAINIK

TAILERRAK
EGUNERO

DESKONTUAK
SINFIN BEZEROAK

U
R
T
E
M
U
G
A

ASTELEHENETIK LARUNBATERA

26, ASTELEHENA

Nola egin armairu
bat melaminazko
taula batekin
17:00

27, ASTEARTEA

Nola eman pintura
arbel-efektuarekin
17:00

28, ASTEAZKENA

Nola aldatu antena
bat eta zintzilikatu
zure telebista
17:00

29, OSTEGUNA

Nola jarri
bainu-manpara bat
17:00

30, OSTIRALA

Nola prestatu eta
mantendu
zure igerilekua garbi
eta osasungarri
17:00

31, ASTEAZKENA

Nola garbitu
kristalak erraz
KÄRCHER-ekin
12:00

AKÍ Durango BI-632 errepidea. Montorreta k.

Brikolajea • Lorezaintza • Dekorazioa